

Irudi aditzak revisited: ergatiborako igoera mendeko perpaus konpletiboetatik¹

Xabier Artiagoitia

(UPV/EHU)

[2018ko azaroa, argitaratu aurreko bertsioa]

Laburpena

*Artikulu honetan, 21. mendeko Ereduzko Prosa Dinamikoa izeneko corpusetik ateratako adibideen bidez erakusten da euskaraz irudi aditzen mendeko perpaus osagarrietatik posible dela ergatiborako igoera gertatzea; igoera hori irudi aditzen hiru aldaeretan gauzatzen da (a. iduri + *edun egitura; b. irudi aditzaren forma trinkoak; eta c. eman aditzaren ‘irudi’ adiera). Adibide hauek guztiak iradokitzen dute kasu ergatiboa egiturazko kasua dela, ez berezkoa.*

Abstract

*This article provides evidence from the Contemporary Dynamic Prose corpus which shows that raising to ergative is well attested in the three constructions with irudi verbs (i. e. iduri + *edun, synthetic forms of the verb irudi, the verb eman ‘give’ in its ‘seem’ acception). The existence of this type of raising suggests that Basque ergative case is in fact structural, rather than inherent.*

1. Atarikoak

Artikulu honetan XXI. mendeko euskara idatzitik ateratako adibide nahiko aurkezten dira erakusteko euskal gramatikan ergatiboz markaturiko argumentuek kasu eratorria, hots konfigurazio sintaktikoaren mende dagoen kasua, eduki dezaketela. Puntu hau dagoeneko Artiagoitia (2001a, 2001b) lanetan defendatu nuen (eta zenbait lanetan -besteak beste, Preminger 2012, Rezac eta beste 2014- ontzat emana izan zen); oraingo berrikuntza, hala ere, hauxe da: adibide berriok mendeko perpaus jokatuetatik egindako *ergatiborako igoera* (*raising to ergative*) erakusten dutela eta ia denak literatur tradizioetik hartuak direla, orduko lan haietan

¹ Lourdes Oñederra lankide onari nire bizitzan bi aldiz gutxienez neu hunkitu izana zor diot: behin *Eta emakumeari sugeak esan zion* nobelarekin, eta beste behin nire aitaren inguruan idatzitako postal xarmagarri batekin. Bihoa lan xume hau *hunkitzailearen* ohorez. Eskerrak ematen dizkiot Sergio Monforteri lan honen aurreko bertsio bati egindako oharrengatik; hutsen ardura neurea da.

ez bezala.² Hau da, nolabait esan genezake gramatikariak bere kabuz moldaturiko adibideez harantzago literatur tradizioak berak ere halako adibideen sendotasuna bermatzen duela. Datu gehigarri hauek, hartara, iradokitzen dute beste behin ere ergatiboa egiturazko kasua izan daitekeela (Laka 1993, Preminger 2012, Rezac eta beste 2014), ez beti theta-rol jakin bati (*egile* theta-rolari) lotua (Levin 1983, Oyharçabal 1992, Laka 2006, 2017).

Artikuluaren bigarren atalean *irudi* aditzen garrantzi erlatiboa ulertzeko eta kontestualizatzeko behar den informazioa laburbiltzen dut: egiturazko eta berezko kasuen arteko diferentziak azaltzen dira gaingiroki, Artiagoitia (2001a, 2001b) lanen ekarpena eta garai hartan *Nahitaezko Kasuaren Parametroa* delakoak zituen inplikazioak gogoratzen dira, eta, azkenik, azken urteetan euskarazko ergatibitateaz egindako zenbait ekarpen aipatzen dira. Hirugarren atalean literatura tradiziotik ateratako *irudi* aditzen adibideak dakartzat, euskalkietan barrena lekukotuta dauden *iduri du*, *irudi* aditzaren forma trinkoak eta *eman* aditzaren erabilerak bereiziz. Azkenik, laburpena eta ondorioak jasotzen dira.

2. *Irudi* aditzak beren testuinguruan ulertzen

2.1. Ergatiboa egiturazko kasu bezala edo berezko kasu bezala

Espazio arrazoiengatik artikulu honetan ezinezkoa zait euskararen ergatibitateaz gramatika sortzailean izan diren ikuspegi berri ematea; horretarako irakurleak badu nora jo (cf. Huarte 2007: 1. kap) baina Berro eta Etxepare (2017) lana mota horretako sintesi baten erakusgarri bikaina da. Nolanahi ere, laburzurtean, esan liteke bi ikuspegi kontrajarri izan direla gure artean: batean markatze ergatiboa egiletasunari lotuta ageri da, eta ez argumentu kopuruari; Levin (1983) eta beronen *Nor Aditzen Hipotesia* lirateke aurrekari argiak. Sarritan, gainera, ergatibo hori berezko kasu gisa hartu izan da, aditzak (edo aditzaren proiektzio batek) esleitzen duen theta-rolari lotuta; hori aldarrikatu dute Oyharçabalek (1992), Holmerrek (1999), eta Lakak (2006, 2017). Beste ikuspegiak, berriz, defendatzen du markatze ergatiboa egiturazkoa edo konfigurazioaren ondorio dela: normalean aditzari edo aditzari darraikion buru funtzional bati zor zaio kasu absolutiboa eta *Denbora* kategoriari esleitzen zaio kasu ergatiboaren erantzukizuna. Ikuspegi honetan, argumentu bakarra egonik absolutiboa agertuko litzateke euskaraz; ergatiboa, oster, bigarren kasua litzateke, iragankortasunari lotuta.

² Artiagoitia (2001b) lanean bai aipatzen dira bizpahiru adibide, Axularren harako “Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe” delarik horietako bat, lehena kronologian. Guztia kontatzeko, J. I. Hualderi zor diot pasa den mendean gai honekiko interesa piztu izana, *sidelez* eztabaida foro batean bitxikeria honetaz galdetu zuenean.

Ñabardurak ñabardura, bigarren ildo horretan kokatzen dira Laka (1993), Fernández (1997), Preminger (2012), Rezac (2008), eta Rezac eta beste (2014) lanak, besteak beste.

Lehen ikuspegiarako, problematikoak izan litezke egiletasuna eta absolutiboa batuta agertzen diren aditzak (e.g. *mintzatu* bezalakoak). Levinen (1983) jatorrizko ahulezia hori gaindituta gelditzen da Oyharçabalen (1992) azterbidean, non ergatiboa aditzak ezar dezakeen berezko kasu argitzat hartzen den; baina Oyharçabalek argi eta garbi uzten du, berezko kasu ergatiboa aditz iragankorreki hiztegi mailan erregulariki lotuta agertzen den arren, egile argumentu asko kasu egiturazkoarekin markatzen direla; alegia, kasu absolutiboa noiz beste hizkuntza batzuetako nominatiboa noiz akusatiboa izango da. Gauzak horrela, ergatiboa berezko kasu argitzat jotzen duen ikuspegiaren predikzioa da markatze ergatiboa ezin dela lotuta egon ez izenordain espletibo edo betegarriekin (definizioz theta-rolak ez dutenak), ez mugida eragiten duten konfigurazioekin, subjektu eratorriekin alegia (Marantz 1991). Bigarren ikuspegiaren arazoak diferenteak dira: normalean, absolutibo argirik erakusten ez duten NOR-NORK motako aditzak dira problematikoak (harako *funtzionatu*, *irakin* eta, neurri apalagoan, *egin* aditzaren gainera eraikitako zenbait, {*korrika*, *dantzari*}_{AdB/PS} + *egin* bezalakoak).


Ikusiko dugunez, *irudi* aditzek bete-betean egiten dute talka lehen ikuspegiaren predikzioekin eta bat egiten dute, printzipioz, markatze ergatiboaren izaera estrukturalaren ideiarekin.

2.2. *Irudi* aditzak beren laberintoan

Artiagoitia (2001a, 2001b) lanetan euskarazko *irudi* aditzak (hots, ipar-ekialdeko *iduri* + **edun* egitura, orokorra den *irudi* aditza bera, eta mendebal-erdialdean antzeko adiera duen *eman* aditzarekikoa) ingelesezko igoera-predikatuen antzera aztertze proposamena egiten dut:

(1) Jonek [~~Jone~~ jatorra] {dirudi, iduri du, ematen du}

(2)




Erabilera arruntean, Burziok (1985) eta Stowell-ek (1978) ingeleserako proposatu bezala, *irudi* estiloko aditzak aditz kopulatiboen gisara aztertuko lirateke: perpausaren subjektua *irudi* aditzaren osagarri den perpaus txikitik gora igotzen duen determinatzaile-sintagma litzateke, *egon* eta *izan* aditz kopulatiboetan bezalatsu. Euskararen bereizgarria da, *egon* eta *izan* aditzetan ez bezala, subjektuak *irudi* aditzetan kasu ergatiboa daukala. Nola azaldu kasu ergatiboa hor?

Artiagoitia (2001a) lana Lakaren (1993, 2005) *Nahitaezko Kasuaren Parametroa* delako azterbidearen barruan kokatzen da eta, hartara, euskara bezalako hizkuntza ergatibo-absolutibo batean printzipioz absolutiboa da nahitaezko kasua, aditzari edo aditzaren inguruko elementu funtzional bati loturiko kasua; ergatiboa, berriz, *Dnb* buruari loturiko kasua, bigarren kasua litzateke.³ Ergatiboaren presentzia justifikatzeko, Artiagoitia (2001a) lanean arrazoitzen da *irudi* bezalako aditzek [-absolutibo] bezalako tasun lexiko bat daramatela eta tasun horrek NKP-k izango lukeen balio orokorrari gailentzeko balio duela: beraz, aditzak (edo dagokion buru funtzionalak) kasu absolutiborik ezin badu esleitu (edo balioztatu), denborak esleitzen (edo balioztatzen) duen kasua dago indarrean honelako aditzetan.

Aditzon kasu-markaketa ergatiboa tasun lexiko murriz edo mugatu baten ondorioztat hartzeak ez dirudi, printzipioz, oso soluzio asegarria; hala ere, bide hori justifikatzen nuen orduan esanez aditzok gramatikaren ingurumarian kokatzen direla eta hiztun askok *de facto* arazoak zituztela *irudi* aditzekiko egiturak ohikotzat hartzeko, edota besterik gabe onartzen dute *irudi* aditzaren adizki trinkoak eskola sisteman ikasitakoak direla; alde horretatik, aditzon status berezia beren berezitasunak eta, neurri batean, marjinaltasunak justifikatzen dutela argudiatu nuen.

Nolanahi ere, (ustez) beste ekarpen bat ere egiten nuen lan haietan: subjektuaren ergatiborako igoera posible zela hiztun askorentzat mendeko perpaus jokatu batetik abiatuta. Eskematikoki adierazita:

³ Elementu funtzional hori *a* aditz txikia, *Boza*, edo *Aspektu* burua izan litezke.



- (4)
- a. *pro*_{espletiboa} [Jone nekatuta dagoela] {ematen du / dirudi}
 - b. Jonek [~~Jone~~ nekatuta dagoela] {ematen du / dirudi}
 - c. *Anak [Jone nekatuta dagoela] {ematen du / dirudi}

Alegia, (4c) bezalako perpausen ezgramatikaltasunak iradokitzen du hiztunentzat ez dela oro har posible *irudi* aditzak argumentu bikoak balira bezala erabiltzea;⁴ hartara, (4a) eta (4b) adibideen arteko kontrastea subjektu espletibo huts baten eta perpaus nagusira igo duelako ergatibo kasua ager dezakeen subjektu lexikoaren arteko kontrastea da funtsean. Honek, noski, esan nahi du onartzen dela ergatiboz markaturiko izenordain betegarriak badirena, izan, ergatiboa berezko kasutzat hartzearekin bateragarri ez den ikuspegia alegia. Igoeraren analisia bi datuekin osatzen nuen lan haietan: *irudi* aditzetan igotako subjektuak besarkadura anbiguitatea sortzen zuen eta irakurketa espezifikoa izan zezakeen:

⁴ Nik kontsultatutako 21 hiztunetatik bakarrak onartzen zuen aukera hori. Salaburuk (1987) ere aipatzen du teorian bi argumentuekin eraiki daitekeela *iduri du* espresioa; beste horrenbeste iradokitzen du Oyharçabalek (1992), (4a)-ko subjektu isila eguraldi aditzeko sasi-argumentuekin parekatuz. Nolanahi ere, nabarmena da aditz mota biak diferentek direla: batzuek (eguraldikoek) kontrola onartzen dute eta besteek (*irudi* aditzek) ez; lehenek agintera onartzen dute eta *irudi*-aditzek, aitzitik, ez:

- (i) a. *pro* elurra egingo du [SUBJ eguna zabaltzean] (pro = SUBJ)
- b. *pro* nekatuta zaudela dirudi [SUBJ lanetik irtetean] (pro ≠ SUBJ)
- (ii) a. Elurra egin dezala behingoz!
- b. *{Eman/irudi} dezala behingoz Jone nekatuta dagoela!

- (5) a. Jokalariren bat Rojorekin minduta dagoela ematen du
1. irakurketa: itxura da jokalaria bat edo beste minduta dagoela
 2. irakurketa: #bada jokalaria jakin bat zeinari buruz itxura den hura minduta dagoela
- b. Jokalariren batek Rojorekin minduta dagoela ematen du
1. irakurketa: itxura da jokalaria bat edo beste minduta dagoela
 2. irakurketa: bada jokalaria jakin bat zeinari buruz itxura den hura minduta dagoela

Igoerarako bigarren argudioa egitura kausatiboekiko bateraezinasunak osatzen zuen (Torrego 1996).⁵

Historia osoa esateko, goiko perpauseko subjektu posizioa igotzea kontu markatutzat jotzen nuen lan haietan: argumentuaren *kopia eta igoera* fenomenoak (Ura 1996 lanean lehenago aldarrikatua) deribazio luzeagoa eskatzen du goian zuzenean espletibo bat sortzeak baino; hartara, hiztun askok, baina ez guzti-guztiek, onartzen dute, eta batez ere hirugarren pertsonarako onartzen dute; lehen eta bigarren pertsonarako, berriz, nekezagoa da fenomenoak ikustea, eta hiztun gutxiagok onartzen dute.

2.3. Eztabaida teorikoa azken urteetan

Bigarren atalaren hasieran esan dudak bezala, artikulua honek ez dauka euskararen ergatibitateaz berriki esan izan denaren sintesia egiteko bokaziorik. Baina zertzelada gutxi batzuk ekarri nahi ditut hona, laburki bada ere.

Rezac eta beste (2014) ikerlana da agian, Nahitaezko Kasuaren Parametroaren inguruko lanen ostean, euskal ergatibitatearen ikuspegi estrukturalaren aldeko saiorik sendoena. Bertan, bi datu mota aurkezten dira nagusiki ikuspegi horren alde: batetik, Kasu Ezartze Bereziko testuinguruetan ageri diren ergatibo-absolutibo txandakatzeak ditugu (Arteatx 2012); bestetik, arrazoi estruktural hutsengatik ergatibo markatzea igoeraren ondorioz erakusten duten *behar* aditz modalaren subjektuak:

- (5) a. *Mirenek* pianoa jotzen du
- b. [*Miren* pianoa jotzen] ikusi dut
- (6) a. Jone eta Miren etorri dira
- b. Jonek eta Mirenek etorri behar dute

⁵ Perpaus esamolde idiomatikoekin arazoak zeudela ere ohartarazi nuen, nahiz eta hiztun gutxi batzuekin baino ez nuen konprobazioa egin.

b'. Jonek eta Mirenek [~~Jone eta Miren~~ etorri] behar dute

Hots, Arteatxen (2012) analisiaren haritik, (5)-eko *Miren* egile argumentua, perpaus arruntean ergatiboz markatuko litzatekeena, oharmen aditz baten *-tzen* perpaus osagarri baten subjektu delarik ezin marka daiteke ergatiboz, bertako *Denbora* kategoria akastuna edo defektiboa delako;⁶ hartara, halakoetan nekez esan liteke ergatiboa aditzak esleitutako kasua denik. Bestetik, *behar* modalaren igoera analisi batean, subjektu eratorriak duen kasu (eta komunztadura) ergatiboa goiko *behar* aditzak inposaturiko *Denbora* kategoria zor zaio, ez *etorri* aditzaren barnekoari; beraz, beste behin, ergatiborako igoera dugu, eta kasu markatze ergatiboa egitura hutsaren ondorio da.

Ergatibitatearen ikuspegi bien arteko eztabaida agortu gabe dagoen seinale, Lakak (2017) hain zuzen ere Rezac eta besteren (2014) *behar* modalaren igoera analisiaren kontra egin du ergatiboaren berezko izaera azpimarratuz. Oraintsukoko bi lan berrik (Deal 2018, Tyler 2018), aitzitik, ergatiborako igoera badela defendatu dute, zeharka bada ere euskara bera aipaturik. Auzia, beraz, bizi-bizirik dago.

3. Irudi aditzen itzulera: ergatiborako igoeraren (ustezko) adibideak

Atal honetan bereziki mendeko perpaus osagarrietatik (denak adierazpenekoak) perpaus nagusiko subjektu posizioa igotzen duten determinatzaile-sintagmen adibideak ekarri ditut; igoeraren egiaztapena errazagoa eta ezin argiagoa izan dadin, (a) mendeko perpausetik igo ez balira absolutiboz markatuko ziratekeen DS-ak aukeratu dira; eta (b) perpaus nagusian (singularreko komunztadura gabe) *irudi* aditzak pluraleko komunztadura duelako igotako DS plurala dela erakusten duten adibideak ere hartu ditut, mendeko perpausean igotako DS-k absolutiboa zein ergatiboa eraman. Hots:

(7) a. $DS_{ERG} Dnb [KonpS \text{ } \overline{DS}_{(ABS)} A+Dnb+Konp]$

b. $DS_{ERG.PL} Dnb_{ERG.PL} [KonpS \text{ } \overline{DS}_{(ABS/ERG.PL)} A+Dnb+Konp]$

Etienne Salaberryren adibide bik laburbiltzen dituzte egoera biak:

⁶ Alde horretatik ez da egia ergatiboaren markaketa euskaraz posible dela perpaus jokatu gabe guztietan (cf. Laka 2017). Nominalizazio arruntetan bai, baina beste perpaus jokatu gabe batzuetan ez.

- (8) a. Bizitegi, lantegi, ur, denak erhautsiak, *Europa gaixoak* iduri zuen, ez zitakeela ihes joan gosearen eskuetarik (E. Salaberry, *Etienne Salaberry I. Kazeta artikulua: antologia*, 2005, 50)
- b. Gaua ari da jausten. *Gauzek* ere iduri *lukete* badutela beren goibeldura... (ibidem, 119 or.)⁷

Argi uzteko igoeraren hipotesia sinesgarria dela, kasu batzuetan ergatiborik gabeko antzeko adibidea eman dut, baina halakoetan konpletibatik igotako DS-k topikalizazio antzeko mugida egiten du, ez DS- edo argumentu-mugida; horrenbestez perpaus nagusiko subjektu posizioan subjektu espletiboa dagoela ulertzen dut. Izan ere, *irudi* aditzen perpaus osagarri konpletiboen adibide mordo bat arakatu ondoren, esan liteke adibide gehienak aurreko (4a) motakoak direla, inperpersonalak alegia, theta-rolik gabeko subjektu betegarria dutenak:

- (9) Bi gizonen artean hain tarte txikia dagoenez, gizona bat-batean gelditzean Martinek astindu txiki bat egin behar izan du atzerantz. Gizona ez *dirudi* mugimenduaz ohartu denik. (P. Lizarralde, *Iragaitzaz -ilunbistan-*, 2008, 87)
- (10) Zer izandu naizen bertze begitarte batez kontsideratzen ahal dut nahiz, baino txandatu, ez. *Iduri du* astokeri bat erraten ari naizela. (M. Legorburu, *Maitatua izandu banintz*, 2013, 86)
- (11) ... baina egunkari berak, bost urte eta hamahiru egun geroago, teniente jeneralaren gorpua izan zela idatzi zuen. *Ematen du* lausotu egiten direla gorpuak, nahastu (U. Elorriaga, *Iazko hezurak*, 2014, 194)

Gatozen, bada, ergatiborako (ustezko) igoeraren adibideak ikustera.

3.1. *irudi* adizki trinkoak

Lehenik eta behin aurreko (7a) motako adibide batzuk dakartzagu:

- (12) *garai bereko emeek*, berriz, gizatasunetik urruntzen eta tximinoetara hurbiltzen ari

⁷ Igoerarik gabeko adibideak onak dira, noski:

- (i) Iduri zuen Europa gaixoa ez zitakeela ihes joan gosearen eskuetarik.
(ii) Iduri luke gauzek badutela beren goibeldura.

- direla *dirudite*. (B. Bryson / I. Iza, *Ia denaren historia labur bat*, 2009, 420)
- (13) eta galdukeriatik baino gehiago, [*bizio-ustekoek*] luzaroan loturik eduki izanaren ondorio den gehiegizko bizitasunetik datozela *dirudite*. (H. Melville / J. R. Vázquez, *Benito Cereno*, 2012, 150)
- (14) Horrelako gogoetan zebilenean, *bere begiek* aurreneko mineralizazioan eta kristalizazioan zeudela *ziruditen*, hain ziren distiratsuak eta sarkorrak. (A. Iturbide, *Kartografien eta mikrobio narratiboen artean*, 2013, 10)
- (15) Gu biok oso desberdinak gara, barren-barrenean inoiz ez dut ulertu zer pentsatzen duzun. [*haiek*] Zure maniak direla *dirudite*, ez dakit, baina baliteke azkenean zuk izatea arrazoa. (D. Buzzati / J. Zabaleta, *Tartarriarren basamortua*, 2010, 74)

Adibide hauetan guztietan, oker ez banago, idazlearen edo itzultzailearen hautua izan da *irudi* aditzarekiko komunztadura egitea, baina komunztadura hori egin edo aditza inpersonal utzi, irakurketak antzekoak dira, aurreko azken adibidea eta honakoa erkatuz egiazta daitekeen bezala:

- (16) a. garai bateko emeak... hurbiltzen ari direla *dirudi*
 b. [*bizio ustekoak*] ... gehiegiko bizitasunetik datozela *dirudi*
 c. bere begiak ... kristalizazioan zeudela *zirudien*
 d. ... [*horiek*] zure maniak direla *dirudi*, ez dakit, baina baliteke azkenean zuk izatea arrazoa.

Beste alde batetik, aurreko (7b) motako adibideak ere topatzen ditugu idazle ezagunetan:

- (17) Kristalean bi neska ikusi zituen islaturik, haren atzean zutik, eskutik helduta. Buelta eman zuen. Denisek galderazko begirada bat jaurti zion. *Bi neskek* zerbait espero zutela *ziruditen*. (P. Giordano / K. Biguri, *Zenbaki lehenen bakardadea*, 2009, 71)
- (18) Elizetako ur bedeinkatu ontziak ere agortuta daude, [*ontziek*] betazala itxita dutela *dirudite* urak utzitako orbanari erreparatuz gero. (K. Uribe, *Mussche*, 2012, 149)
- (19) *Alternatibek ez dirudite* gauzak hobetu ditzaketarik (H. Gallastegi, *Berria*, “Besteei begiratu barik”, 2007/05/13)

Hemen ere esango nuke *irudi* aditzak egiazki argumentu bakarra duela eta idazleak hautatu duela subjektuak goiko aditzarekin komunztatzea, interpretazio ñabardura berezirik gabe:

- (20) a. Neskek zerbait espero zutela *zirudien*
 b. ... betazala itxita dutela *dirudi* urak utzitako orbanari erreparatuz gero
 c. Alternatibek ez *dirudi* gauzak hobetu ditzaketenik

Aurrerago jo aurretik adibide pare interesgarri honi erreparatzea merezi du:

- (21) Bai, beregana zetorren zaldun hura aspaldiko Antso zen, eta Estibalitz zekarren berarekin! *Mutikoa* bazirudien osaba fraide ezezagun batekin *zeturrela*. (M. Salterain, *Erresumaren ilunsentia*, 2014, 212)
- (22) Kapa antzeko batek estaltzen zion bular ingurua, eta gerritik behera, orkatiletaraino, gona batek. *Gonak bazirudien* lisatuta zegoela, bere izur eta guzti. (M. Salterain, *Erresumaren ilunsentia*, 2014, 225)

Idazle berak lan berean txandakatzen ditu ergatiborako igoera (= 22) eta egitura inbertsonala (= 21; cf. arestiko 9), bien arteko joko hau estilstikoa dela iradokiz.

3.2. *Eman* aditzarekiko egiturak

Eman aditzaren “irudi” adieraren adibideak ez dira hain ohikoak literatura idatzian; pentsatzen dut honetan zerikusia dukeela, esaterako, Sarasolak (2007) bere *Euskal Hiztegia* delakoan hizkuntza maila behekotzat jo izanak; ia hitzez hitz hari jarraitzen dion *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ez dauka halako iruzkinik. Hala ere, aurkitzen dira zenbait adibide. Batzuk mendeko absolutibo posizio batetik igotakoak dira eta hauen artean aurkitu dut bigarren pertsonako adibide bakanetariko bat:

- (23) Txakur-zaunkak eta tiro-hotsak zetozen errekastorearen goialdetik; nahiz eta urrutikoak iruditu, [*Txakur-zaunkek eta tiro-hotsek*] berehala gertura zitezkeela *ematen zuten*. (J. Penades, *Ileak uretan*, 2012, 145)
- (24) Zeru grisarekin kontrastatuz, kolorezko pintzelkadak zirela *ematen zuten zuhaitzek*. (N. Woord / G. Goia, *Mrs. Hemingway*, 2016, 164)
- (25) [*hik*] herrenka habilela *ematen duk*. (A. Kristof / E. Mujika, *Berdin dio*, 2005, 55)

Berriz ere, nire aldetik okerrik ez bada, idazlearen hautua da ergatiboarekin komunztatzea, ergatiborik gabe ere antzeko interpretazioa lortzen dugulako:

- (26) [Txakur-zaunkak eta tiro-hotsak] berehala gertura zitezkeela *ematen zuen*.
 b. Zuhaitzak kolorezko pintzeladak zirela *ematen zuen*.
 c. Herrenka habilela *ematen dik*.

Badira, halaber, ergatibo plurala dutelako *eman* aditzarekin komunztadura plurala egiten duten adibideak ere:

- (27) *Hil-hurren batzuek* sufritzen dutela *ematen dute* ukitzen dituztenean. (M. Darriusecq / K. Zabala, *Tom hil da*, 2008, 147)
 (28) *Zokil eta Gexan Hiriartek* amodioa deskubritu zutela *ematen zuten*. (I. Borda, *Jalgi hadi plazara*, 2007, 147)

Aurrekoetan bezala, *ematen du/ematen zuen* guztiz normalak lirateke hiztunentzat.

3.3. *Iduri* + **edun*

Aditz honekiko egiturak dira ustez ergatiborako igoera dutenen artetik ugarienak, alde handiz, nik egin dudan bilaketaren arabera behintzat. Aurreko azpiataletan bezala, lehenengo mendeko subjektu absolutibo batetik igota diruditenak *ematen* ditugu:

- (29) [*Karrika zenbaitek*] Europako herri ainitzen eitekoak zirela *iduri zuten*. (P. Trounaday, *Galerna*, 2012, 116)
 (30) Iturrira edatera joan eta *xanpaña botailak berak* ere *iduri zuen* ene trufari zegoela! (P. Trounaday, *Galerna*, 2012, 230)
 (31) Ba, hori hien beti ahoan, besteri ere hola gertatu zaiotela egundainotik, ez girela betikoz hemen, eta hau eta hua, [*hik*] *iduri hien* beti horren beha hintzala edozein gauza trebeska heldu bazitzaukan bereziki. (M. Thikoipe, *Jin bezala*, 2009, 17)
 (32) *Laborantza Ganbara hunek iduri zuen* landare ttipi bat zela hastapenean, ainitzek irrikaitz batekin so egiten zioten, ez zuela gerorik eta. (*Herria*, sinadurarik gabe, 2010/02/18, 1)
 (33) *Dunek iduri baitute* direla sumendiak orduan. (A. Arkotxa, *Berria*, 2012/01/11)⁸

⁸ Bada adibide bat, aski interesgarria, itxura batean *iduri* + **edun* argumentu biko aditzat jotzera gonbidatzen duena:

- (34) Haur irri bat begietan, [zuk] *iduri zinuen* ari zinela zuhaurez trufan... (E. Salaberry, *Etienne Salaberry I. Kazeta artikulua: antologia*, 2005, 126)
- (35) [Angelesek] orai *iduri dute* seguretik ari direla. (J. Saint-Pierre “Anxuberro”, *14eko Gerla Handia*, 1998, 152)

Besteetarikoak ere badira; hots, subjektu ergatibo plural batetik igotakoak eta, horrenbestez, *iduri* + **edun* aditz esapidearekin komunztadura plurala daukatenak; hona hemen lagin txiki bat:

- (36) Bainan, *hauek iduri zuten* ez *zutela* beren egitekoez bestalde gaineratikoez axola handirik. (P. Trounaday, *Galerna*, 2012, 134)
- (37) Vietnamdarrek bentzutu zituzten Khmer gorriak gero eta *iduri dute* konduen ordua etorria dutela *gaixtaginek* kanputxear eta beste nazioarteko jujarien aitzinean (*Herria*, sinadurarik gabe, 2005/04/21, 2)
- (38) Alabainan zonbat emazteki ez da, [zenbait emaztekik] ez *baitute iduri* badutela bertze lanik, goizetik arrats, elgarri elgarren salatzea baizik? (X. Arbelbide, *Xuri-gorriak*, 2007, 235)

Atzera ere, badirudi singularreko komunztadura ere arazorik gabea izango zela:

- (39) a. *Hauek iduri zuen* ez *zutela* beren egitekoez...
 b. ... eta *iduri du* konduen ordua etorria *dutela* [*gaixtaginek*]...
 c. ...ez *baitu iduri* [*zenbait emaztekik*] badutela bertze lanik...

(i) ... hain da afera dudakorra, *auzipetuek iduri baituzue* denak saltsa berekoak zaretela. (*Galerna*, P. Trounaday, 2012, 243)

Nire uste apalean, aitzitik, zenbatzaile lerrakorren (*floating quantifier*) adibide bat besterik ez litzateke, ondoko adibidearen aldaera hutsa baina subjektuaren igoerarekin:

- (ii) *Iduri baitu auzipetuak* denak saltsa berekoak zaretela.

Argi dago denak zenbatzailearekin halako *DS + den(ak)* sintagma bikoitzak arruntak direla euskaraz, bai behintzat ahozko hizkeran:

- (iii) a. *Hauek denak*, Euskal Herritik xuxenean beren familiekin etorriak, hemen berean kokatu eta laketuak zirela agerian zuten (P. Trounaday, *Galerna*, 2012, 228)
 b. *Ikasleak denak* etorri dira gaurko aurkezpena
 c. *Biztanleak denak* batera etortzen ziren beren zereginetara eta beren egoitzara (M. Mujica Lainez /J. M. Esnaola, *Zazpi demonioen bidaia*, 1998)

Merezi du azpimarratzea *irudi* + **edun* aldaerarekiko adibideak ere ez direla falta; lehena (7a) motakoa da eta beste biak (7b) motakoak:

- (40) Apalak, hertsiaik, ongi tindatuak; kasik [etxe] *denek irudi zuten* berriak zirela. (D. Landart, *Ahularen indarra*, 2011, 88)
- (41) Argala da; zimur sakonak ditu bere kopeta estu beheratuan; haren begiak, ttikiak eta distiragabeak, beldur-antzean mugitzen direla batzuetan hara eta hona ematen du, baina [*begiek*] barrura begiratzen dutela *irudi dute* sarriago. (N. Hawthorne / K. Navarro, *Wakefield*, 2007, 26)
- (42) Jendea aurretik musukatu eta bizkarrean labana sastatzeko gauza haizela *irudi duk* [*hik*]. F. Werfel / J. L. Agirre, *Batxilerren eguna*, 2008, 130)

Ergatiborako igoera erakusten omen duten adibideak aurkeztu ondoren, natorren sailkatzen zailagoak diren edo bitxi xamarrak diruditen zenbat adibide aipatzera.

3.4. Adibide bitxiak

Atal honetan gain-gainetik aztertzeko bada ere, ustez *irudi* aditzak argumentu bikoak bezala eraiki dituzten adibideak dakartzat, teorian Salaburuk (1987) eta Oyharçabalek (1992) aldarrikatzen dutenaren arabera aukera arrunta litzatekeena. Lehen adibide sorta Itxaro Bordaren lanetatik datorkigu:

- (43) -Zaude, Kürbissuppearen errezeta eskatu behar diot. Datorren urtean gure txanda da eta sarrerarako salda egokia dela *dirudit*. (I. Borda, *Post mortem scripta volant*, 2011, 206)
- (44) Bitxia da: nehoiz ez naiz Timbuktu egon eta nire-nirea dela *dirudit* kasik Baiona edo Otsabide mitikoa bezain (I. Borda, *Berria*, izenbururik gabe, 2015/01/11)

Bi kasuotan, argi dago argumentu bikoak (perpaus osagarria + esperimentatzailea) dela *irudi* aditza, baina *dirudit* horiek biak ez dira *irudi* aditzaren NOR-NORK erabilerarekin lotzen, NOR-NORI erabilerarekin baino. Eta nik dakidala behintzat, erabat pertsonala da Itxaro Borda idazleak *dirudit* modu horretan erabiltzea, erabilera estandarretik kanpokoa alegia.

Nolanahi ere, topatu ditut ezbairik gabe argumentu biko egitura edukiko luketen adibide bi, non ezin den esan *irudi* aditzaren subjektua mendeko perpauseko argumentua denik edo mendeko perpausetik igotako argumentua denik:

- (45) [*libanotarrek* (?)] Libanen gero ta segurago *iduri dute* Rafik Hariri Libango lehen ministro ohia Syriak hila duela bonbaz joan den otsailaren 14an Beyruten, angles kaseta haundi baten arabera, frogak ere emanaz gainera (*Herria*, sinadurarik gabe, “Herriak eta gizonak”, 2005/03/24, 2).
- (46) Pettan auzoak, gizon zuhurrak, aipatzen duen bezala, gazteria hortan *zenbeitek iduri dute* horrela biltzen dela osasun eta nausitasun. (*Herria*, sinadurarik gabe, “Herrietako kronikak”, 2006/03/30, 4)

Bigarren adibidean *zenbeitek* subjektu ergatiboak ez dauka kiderik mendeko perpaus osagarrian; antzera gertatzen da lehen adibidean, non (*haiek* = *libanotarrek*) subjektu ergatiboaren aztarnarik ez den sumatzen mendeko perpausean. Mota honetako adibideak benetako irla bat dira; ehunka eta ehunka adibide inpersonalen artetik eta ergatiborako igoera luketen dozenaka adibideen artetik atera ditudan bakarrak. Nire uste apalean, gutxiegi dira pentsatzeko oro har *irudi* aditzak argumentu bikoak direnik. Hori bai, esan beharra dago *iduri* + **edun* egiturarekin baino ez ditudala horrelakoak topatu (eta jatorriz hauxe zen Salaburuk eta Oyharçabalek argumentu bi eduki zitzakeela aipatzen zuten egitura); beraz, argumentu biko aukera hori, existitzekotan, egitura honetara (eta hiztun gutxi batzuetara) mugatzen dela dirudi.

4. Ondorioak

Artikulu honetan mende honetako literatura idatzitik ateratako adibide ugari aurkeztu ditut, eta adibideok iradokitzen dute *irudi* aditzek perpaus osagarri konpletiboa hartzen dutenean aukeran dutela, idazle (eta hiztun) askorendako behintzat, mendeko perpauseko subjektua goiko perpauseko subjektu gisa gauzatzea. Behin posizio horretan, *ergatiborako igoera* egin dutelarik, subjektuak kasu (eta komunztadura) ergatiboa erakusten du; eskematikoki (hurrenkera lineala alde batera utzirik):

- (47) a. -Θ {*eman, iduri* + **edun* / *dirudi*} [SUBJ -ela] (egitura inpersonala)
 b. SUBJ {*eman, iduri* + **edun* / *dirudi*} [SUBJ -ela] (ergatiborako igoera)
- ↑
 └──┘

Egitura inbertsonala da arakatutako corpusean alde handiz nagusi dena baina bestearen adibideak ere ikusten dira, eta ez gutxi. Ergatiborako igoera hau berdin gertatuko litzateke *irudi* aditzaren osagarri perpaus txikia dugunean, baina kasu horretan subjektuak nahitaezkoa du *Denbora* kategoriaren espezifikatzaileira igotzea:

- (48) a. - Θ [Jone zintzoa] {*eman, iduri +*edun / dirudi*}
 b. Jonek [~~Jone~~ zintzoa]_{P. Txikia} {*eman, iduri +*edun / dirudi*}
 ↑

Idea hau aspaldi plazaratu zen (cf. Artiagoitia 2001a, 2001b), eta *irudi* aditzen [-absolutibo] tasun lexiko baten bidez gauzatzen zen; perpaus osagarrien kasuan subjektuaren pertsonatasunak, modu markatuan bada ere, bitan erkatu edo balioztatu zitekezkeela eta kasua perpaus nagusikoa izan zitekeela ere esatera heldu nintzen; hemengo adibideek erakusten dute analisi hori agian bide onetik doala. Nolanahi ere, lan eta ikerketa sakonagoa behar da azterbide oso bat eskaintzeko.

Bibliografia

- Arteatx, I., 2012, “Perception verb complements in Basque”, in U. Etxeberria, R. Etxepare eta M. Uribe-Etxebarria (arg.) *Noun Phrases and Nominalizations in Basque*, Amsterdam, John Benjamins, 397-435.
- Artiagoitia, X., 2001a, “Seemingly ergative and ergatively seeming”, in Julia Herschensohn, Enrique Mallén eta Karen Zagona (arg.) *Features and interfaces in Romance*, Amsterdam, Benjamins, 1-22.
- Artiagoitia, X., 2001b, “Irudiak eta emaileak”, *ASJU* 35:1, 29-64.
- Berro, A. & Etxepare, R., 2017, “Ergativity in Basque”, in J. Coon, D. Massam, L. D. Travis (arg.) *The Oxford Handbook of Ergativity*, Oxford, Oxford University Press, 782-806.
- Burzio, L., 1986, *Italian Syntax. A Government and Binding Approach*, Dordrecht: Reidel.
- Deal, A. R., 2018, “Raising to ergative: remarks on applicatives of unaccusatives”, *Linguistic Inquiry* [https://doi.org/10.1162/ling_a_00310]
- Fernández, B., 1997, *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*, UPV/EHUko doktorego tesia.
- Holmer, N., 1999, “An active analysis of Basque ergativity”, *Fontes Linguae Vasconum* 81, 189-225.
- Huarte, M., 2007, *Ergatiboaren jabekuntza: ikerketa esperimental bat eta beraren emaitzak*, UPV/EHUko doktorego tesia.

- Laka, I., 1993, “Unergatives that Assign Ergative, Unaccusatives that Assign Accusative”, *Papers on Case & Agreement I. Vol. 18*, Cambridge, MITWPL, 149-172.
- Laka, I. 2006, “On the Nature of Case in Basque: Structural or Inherent?”, in Hans Broekhuis, Norbert Corver, Riny Huybregts, Ursula Kleinhenz eta Jan Koster (arg.) *Organizing Grammar*, Berlin, Mouton de Gruyter, 374-382.
- Laka, I., 2017, “Ergative *need* not Split: An Exploration into the *TotalErg* Hypothesis”, in J. Coon, D. Massam, L. D. Travis (arg.) *The Oxford Handbook of Ergativity*, Oxford, Oxford University Press, 159-174.
- Levin, B., 1983, *On the Nature of Ergativity*, MIT doktorego tesia.
- Marantz, A., 1991, “Case and licensing”, in G. Westphal et al. (arg.), *Proceedings of the 8th Eastern States Conference on Linguistics (ESCOL 8)*, 234-253.
- Oyharçabal, B., 1992, “Structural Case and Inherent Case Marking: Ergaccusativity in Basque”, in J. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.) *Syntactic Theory and Basque Syntax*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 309-342.
- Preminger, O., 2012, “The absence of an implicit object from unergatives: new and old evidence from Basque”, *Lingua* 122, 278-288.
- Rezac, M., 2008, “The syntax of eccentric agreement: The Person Case Constraint and Absolute Displacement in Basque”. *Natural Language and Linguistic Theory* 26, 61-106.
- Rezac, M, R. Etxepare, & P. Albizu, 2014, “The structural ergative of Basque and the theory of Case”, *Natural Language and Linguistic Theory* 32, 1273-1330.
- Salaburu, P., 1987, “IS-aren mugimendua”, in P. Salaburu (arg), *Sintaxi Arazoak*, Donostia, UPV/EHU, 65-80.
- Stowell, T., 1978, “What was there before there was there”, *Chicago Linguistic Society* 14, 458-71.
- Torrego, E., 1996, “Experiencers and Raising Verbs”, in R. Freidin (arg.), *Current Issues in Comparative Grammar*, Dordrecht, Kluwer, 101-120.
- Tyler, M., 2018, “Absolute Promotion and the Condition on Clitic Hosts in Choctaw”, *Natural Language and Linguistic Theory*, <https://doi.org/10.1007/s11049-018-9426-z>
- Ura, H., 1996, *Multiple Feature-Checking: A Theory of Grammatical Function Splitting*, MIT doktorego tesia.

• **Erabilitako adibideen iturriak:**

Ereduzko Prosa Dinamikoa [<http://www.ehu.eus/ehg/epd/>]

Saint-Pierre, J. “Anxuberro” (1998) *14eko Gerla Handia. Piarres Charrittonek paratua,*

Donostia: Euskal Idazleen Elkartea.

Salaberry, E. (2003) *Etienne Salabery I. (1903-2003)*, Sevilla: Egan.